

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Euskadik nekazaritza eta abeltzaintzako gai komunak aztertu dituzte

Tokiko produktua sustatzea eta gazteak sektorerara erakartzea, Elizalde kontseilariak eta Oroz sailburuordeak gaur goizean Gasteizen egindako bileran aztertutako gai nagusiak

Viernes, 05 de febrero de 2016

Nafarroak eta Euskadik nekazaritza eta abeltzaintzako gai komunak aztertu dituzte, tokiko produktua sustatzea eta gazteak sektorerara erakartzea bereziki. Gai horiek eta beste zenbait jorratu dituzte Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizaldek eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuorde Bitor Orozek, gaur goizean Gasteizen egindako bileran; bilkura horren helburua bi administrazioek lehen sektoreari eta landa-munduari lotutako politiken esparruan duten lankidetzak sakontzea izan da.



Ezkerretik eskuinera: Gil, Elizalde kontseilaria, Oroz sailburuordea eta Manterola.

Gainera, landa-ingurunerako eta lehen sektorerako gaurkotasunezkoak eta garrantzi handikoak diren gaiak jorratu dira, adibidez: landa garapeneko programen ildo estrategikoak (PDR) 2015-2020, esnekien sektorea, indarrak batzeko aukera kalitatezko markak sustatze aldera, Idiazabal Jatorrizko Deituraren Planari jarraipena egitea eta Europako programetan parte hartzea.

Bilkuran parte hartu dute ere: Foru Gobernuako Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Gilek eta Eusko Jaurlaritzako Kalitate eta Elikadura Industrien zuzendari Peli Manterolak.